


Euskadiko hamar gaztetik bederatzik sexu aldaketaren alde daude, bai eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde ere


Hamarretik zortzik bizitzan zehar aukera sexualaz aldatzea posiblea dela pentsatzen dute

Ekainaren 28an **LGTB+ (lesbiana, gay, transexual eta bisexualak) Harrotasunaren Nazioarteko Eguna** dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) aditzera ematen ditu gai honi buruzko Gazteen iritziak.


Gazte gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde agertu dira (% 91), bai eta sexu aldaketaren aldekoak ere (% 86). Bi iritzi horiek hedatuago daude orain 2008an edota 2012an baino.




Bestalde, 15 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik zortzik uste dute pertsona batek bere bizitzan zehar bere aukera sexuala aldatu ahal duela eta harremanak izan gizonekin zein emakumeekin). Ideia horrekin ados daudenak nabarmen gehitu dira 2012tik 2016ra, %65 tik %83ra pasatu dira.



Aztertutako hiru ideia horiei buruz gizon eta emakume gazteek dituzten iritziak aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu identitate sexualari buruzko jarrera irekiagoa dela emakume gazteen artean, gizon gazteen artean baino; bereziki orientazio sexuala aldaezina ez dela eta nahiaren orientazioa bizitzan zehar alda daitekeela islatzen duenean.



Adinaren arabera desberdintasunak txikiak dira. 25 eta 29 urtekoen artean soilik antzematen da sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren eta sexu aldaketaren aldeko kopuru zertxobait txikiagoa.



2016ko datuak "**Euskadiko gazteak 2016**" ikerketaren aurrerapen datuak dira. Ikerketa hori Gazteen Euskal Behatokiak lau urtean behin burutzen duen *Euskadiko gazteak* bildumaren barruan dago. Bertan 30 urtetik beherako gazteen iritzia eta jarrerak aztertzen dira, horretarako egindako inkesta baten emaitzak oinarri hartuta.